



Lanbide-heziketaren eremuan aplikatutako **2030 Agendako** printzipio horizontalen

**JARDUNBIDE EGOKIEN GIDA**

**Interreg**  
POCTEFA  
FORMA NAEN



Socios



Nafarroako Gobernua  
Hezkuntza Departamentua

Gobierno de Navarra  
Departamento de Educación



Asociados





# Edukien aurkibidea

<b>Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.Proiektuaren xedea .....	5
1.1 Objetivo del proyecto .....	5
1.2 Elkarrekin diseinatzeko lana.....	5
1.3 Euroeskualdearen mugaz haraindiko ikuspegia .....	5
1.4 Parte hartu duten eragileak.....	6
1.5 Proiektuaren garapena .....	7
<b>2.LANBIDE HEZIKETARI APLIKATUTAKO 2030 AGENDAREN PRINTZIPIO HORIIZONTALAK .....</b>	<b>9</b>
<b>3.GARAPEN IRAUNKORREKO HELBURUAK ETA ERREFERENTZIAZKO XEDEAK AUTOMOZIOA ETA ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK LANBIDE-ARLOETAN .....</b>	<b>10</b>
3.1 Ikuspegi orokorra .....	10
3.2 Interpretatzeko gakoak.....	12
<b>4. LANTALDEAK IDENTIFIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK .....</b>	<b>21</b>
4.1 Jardunbide Egokien Aurkezpena.....	21
4.3 Jardunbide egokiak egiteko jarraibideak.....	22
BP1 Ibilbide energetikoa .....	22
BP2 Klima Aldaketaren Escape room-a .....	23
BP3 Agenda 2030 ezagutzea.....	24
BP4 Emakumeen ekarpena identifikatzea .....	25
BP5 Lan txukunari buruzko hausnarketa.....	26
BP6 Etxeko finantzen analisia .....	27
BP7 Enpresa simulatuaren Berdintasun Plana.....	28
<b>5.EUROESKUALDEKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEETAN JARDUNBIDE EGOKIAK EZARTZEKO BALIABIDEAK .....</b>	<b>29</b>
5.1 Baliabidea 1. Energia-analisiaren fitxa.....	29
5.2 Baliabidea 2. Agenda-2030-enpresak txostena .....	30
5.3 Baliabidea 3. Enpresaren analisia GJH.....	30



## Aurkezpena

2030 Agenda NBEk 2015ean onetsitako plan bat da, JASANGARRITASUNAREN, PERTSONEN arteko BERDINTASUNAREN, OPAROTASUNAREN, eta BAKEA eta JUSTIZIA UNIBERTSALEN aldekoa.

Agendak mota orotako eragile publiko zein pribatu gonbidatzen ditu Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) beren gain hartzera. Helburu horiek ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-esparruak hartzen dituzte barne, eta munduko garapen-programak bideratuko dituzte hurrengo urteetan, honako printzipio hauetan oinarrituta:

- Inor atzean ez uztea.
- Agenda integral eta zeharkakoa lortzea.
- Helburu eta xede neurgarriak hartzea.
- Modu globalean pentsatzea eta maila lokalean jardutea.
- Aliantzak bultzatzea eta sustatzea.

2030 Agenda hainbat mailalara iristen da, bai administrazioan bai Euroeskualdea osatzen duten hiru lurraldeetako (Akitania Berria, Nafarroa eta

Euskadi) zenbait sektoretako eragileen artean. Hezkuntzaren sektoreak, zehazki, apustu nabarmena egiten ari da 2030 Agendaren printzipioak barneratzeko eta 17 Garapen Jasangarrirako Helburuak bere jardueran aplikatzeko, horrela ikasleak jasangarritasunari buruz inspiratze eta irakaste aldera.

Lanbide-heziketak, ikastetxeen eta jardueren bidez, eragin positiboa izan dezake 17 Helburuak eta haien Xedek hartzeko orduan, bai gaur egun, bai etorkizunean. Arreta nagusiki 4. (Kalitatezko hezkuntza) eta 8. (Lan duina eta hazkunde ekonomikoa) helburuetan jarria duen arren, lanbide-heziketak Garapenerako beste Helburu askotan lagun dezake, gida honetan ikusiko den moduan.

Gida hau lanbide-heziketako zentroekin maiz lan egiten duen mugaz haraindiko lantalde batek eratu duen elkarrekin diseinatzeko proiektu batetik eratorri da, eta inspirazio-iturri izan nahi du 2030 Agendaren printzipio horizontalak beren heziketa-jardueran hartzeko aukera ematen duten Jardunbide Egokien bidez 2030 Agendara hurbildu nahi diren ikastetxeentzat.

 **GARAPEN JASANGARRIRAKO**  **HELBURUAK**





# 1. PROIEKTUAREN GAKOAK

## 1.1 Proiektuaren xedea

Gida honen oinarria den proiektuaren helburu nagusia hau da: modu parte-hartzailean identifikatzea zein diren 2030 Agendako printzipio horizontalak Forma NAEN Proiektuaren LANTALDEARI dagokionez.

Lantaldea (PK) EUROESKUALDEko hiru lurraldeetako (Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroa) AUTOMOBILGINTZA eta ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK arloetako lanbide-heziketako zenbait ikastetxek osatzen dute.



## 1.2 Elkarrekin diseinatzeko lana

Proiektuaren antolamendu nagusia elkarrekin diseinatzeko ikuspuntuan oinarritu da. Ikuspuntu horretan, hiru lurraldeetako lanbide-heziketako zenbait ikastetxek osatutako lantaldeak (PK, Praktika-komunitatea) parte-hartzea funtsezkoa izan da proiektuaren xedea betetzen dela bermatzeko.

## 1.3 Euroeskualdearen mugaz harandiko ikuspegia

Proiektua Forma NAEN Interreg POCTEFA Programaren barruan dago. Proiektuaren mugaz harandiko izaerari eta Nazio Batuen 2030 Agendaren atzean dagoen filosofiari esker, lantaldeak ibilbide bat jarraitu eta 7 jardunbide egokiko printzipio horizontalak identifikatu eta gidatu ahal izan ditu. Lantaldearen azken helburua da jardunbide horiek Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako lanbide-heziketako beste zenbait ikastetxetara eramatea.



## 1.4 Parte hartu duten eragileak


Eragile hauek hartu dute parte proiektuan:

LANBIDE-HEZIKETAKO IKASTETXEAK		
Ikastetxea	Lurraldea	Familias Profesionales
CIFP USURBIL LHII	Euskadi	Administrazioa eta finantzak
CIP Virgen del Camino IIP	Nafarroa	Automobilgintza
CIFP Izarraitz Lanbide Heziketa LHII	Euskadi	Administrazioa eta finantzak
CIP Donapea IIP	Nafarroa	Administrazioa eta finantzak Automobilgintza
IES Plaiaundi BHI	Euskadi	Administrazioa eta finantzak
IES Zubiri Manteo BHI	Euskadi	Administrazioa eta finantzak
CIP Elizondo Lanbide Eskola IIP	Nafarroa	Administrazioa eta finantzak
CIFP Meka LHII	Euskadi	Automobilgintza
Lycée Louis de Foix BAYONNE	Akitania Berria	Administrazioa eta finantzak
Chambre de Métiers et de l'Artisanat Régionale - 64	Akitania Berria	Administrazioa eta finantzak Automobilgintza
Lycée des Métiers Paul Bert	Akitania Berria	Administrazioa eta finantzak
CIFP Monte Albertia LHII	Euskadi	Bestelakoak
CIFP Politécnico Easo Politeknikoa LHII	Euskadi	Bestelakoak
LANBIDE-HEZIKETARI LOTUTAKO BESTELAKO ERAGILEAK		
Erakundea	Lurraldea	
Nafarroako Gobernua - Hezkuntza Saila	Nafarroa	
GECT Eurorégion Nouvelle-Aquitaine Euskadi Navarre	Euroeskualdea	
TKNIKA	Euskadi	
Ikaslan Gipuzkoa	Euskadi	
PROIEKTUAREN KUDEAKETA		
Erakundea	Lurraldea	
TKNIKA	Euskadi	
Ikaslan Gipuzkoa	Euskadi	
PROIEKTURAKO LAGUNTZA TEKNIKOA ETA LANTALDEAREN DINAMIZAZIOA		
Erakundea	Lurraldea	
ADOS Sostenibilidad y Clima SL	Euskadi	



## 1.5 Proiektuaren garapena

Proiektua 2021eko maiatzaren eta 2022ko maiatzaren artean egin da, 5 lan-saiok markatutako pausu-sekuentzia baten bidez:



### 1. LAN-SAIOA.

GJHak eta haiek hiru lurraldeetako ikastetxeetan nola aplikatu aztertzea




2021eko maiatzaren 20an egin zen, online. Lehen saioaren helburua izan zen parte hartzen duten ikastetxeei jakinaraztea zein diren 2030 Agendako printzipioak, zer testuingurutan ezarriko diren Euroeskualdeko hiru lurraldeetan, eta lanbide-heziketaren ikuspuntutik zer dagoen Garapen Jasangarrirako Helburu bakoitzaren atzean.

Saioak izaera nagusiki teorikoa eta hezigarria eduki arren, ondorengo lanean kontuan hartu beharreko hainbat kontu adostu ziren.



## 2. LAN-SAIOA. GJHak lantzea PKen lantaldeetan



2021eko urriaren 6an egin zen, online. Saio honetan, Taldea osatzen duten bi arloen arabera lan-azpitaldetan egin zen lan (Administrazioa eta finantzak eta Automobilgintza), hala arlo bakoitzaren erreferentzia-xede komun eta espezifikoak identifikatzeko.

## 3. LAN-SAIOA. Tailerrak egitea, printzipio horizontalak ikastetxeetan aplikatzeko



2021eko abenduaren 9an egin zen, TKNIKAN. Saio honetan 8 Jardunbide Egoki identifikatu ziren, gero ikastetxe parte-hartzaileetan gidatzeko.

## 4. LAN-SAIOA. Hiru lurraldeetako ikastetxeen arteko baterako ekintzak bultzatzea



2022ko martxoaren 29an egin zen, Elizondoko Kultur-etxean. Saio honetan ikastetxe bakoitzak Jardunbide Egokien gidatzearen emaitzak aurkeztu zituen, eta Jardunbide Egokien baterako balorazioa egin zuten.

## 5. LAN-SAIOA. Printzipio horizontalen jardunbide egokien gida



2022ko maiatzaren 17an egin zen, TKNIKAN. Azken saio honek taldeak batera sortutako Gidaren egitura eta edukiak partekatzeko balio izan zuen, bai eta 2030 Agendan oinarritutako eta lanbide-heziketari aplikatutako Jardunbide Onak identifikatuzetik eta gidatuzetik eratorritako printzipio horizontalei buruz gogoeta egiteko ere. Jarraian aurkeztuko dira printzipioak. Horretaz gain, proiektuaren balorazioa egin zen.





## 2. LANBIDE-HEZIKETARI APLIKATUTAKO 2030 AGENDA KO PRINTZIOPIO HORIZONTALAK

gindako lanaren emaitza nagusien artean, 2030 Agendan oinarritutako eta lanbide-heziketari aplikatutako Jardunbide Onak identifikatuz eta gidatuz eratorritako printzipio horizontal hauek nabarmentzen dira:



### PRINTZIOPIO HORIZONTALAK

#### BIDERAGARRITASUNA

Izan ere, Jardunbide Egokiak elkarrekin diseinatzearen ondorioz, errazak dira lanbide-heziketan aplikatzen irakasleen bidez.

#### BALIAGARRITASUNA

Izan ere, planteatutako Jardunbide Egokiek ikasleen artean Nazio Batuen 2030 Agendari lotutako gai buruzko eztabaida berriak hasteko balio dute, eta horrekin batera heziketarako baliagarriak eta eraginkorrak dira.

#### ERAGINKORTASUNA

Jardunbide Egokiak ikasleen artean aplikatzeak izandako emaitzetan oinarrituta.

#### TRANSFERITZEKO GAITASUNA

Izan ere, planteatutako Jardunbide Egokiak erraz transferitu daitezke lanbide-heziketako edozein arlori eta Euroeskualdea osatzen duten edozein lurralderi.

#### INKLUSIOA

Izan ere, Jardunbide Egokiak ikasgeletara eramanean, parte hartzen duten ikasleak baldintza berdinetan daude.

#### HEZKUNTZA

Izan ere, hezkuntza proiektu honen izateko arrazoiak eta gakoak bat da, eta, beraz, oinarritik egon da bertan.

#### BERDINTASUNA

Izan ere, berdintasunaren ikuspegia proiektuaren zati handi batean eta Jardunbide Egoki gehienetan egon da zeharkako printzipio moduan..

#### ZEHARKAKOTASUNA

Izan ere, genero- eta ingurumen-ikuspuntuetan Jardunbide Egoki gehienetan egon dira.

#### LANKIDETZA

Izan ere, proiektu hau garatzean, lankidetzaren bi arlotan egon da. Alde batetik, proiektua elkarlanean garatu da lantaldean, eta, bestetik, Jardunbide Onen bidez ikastetxeetara eramateak ikasleak eta irakasleak elkarrekin lan egitea eskatu du.

#### KONPROMISOA

Izan ere, parte-hartzea benetako izateko, konpromiso aktiboa behar da, eta proiektua beretu behar da.

#### JASANGARRITASUNA

Izan ere, jasangarritasuna proiektuaren zati handi batean eta Jardunbide Egoki gehienetan egon da zeharkako printzipio moduan.





# 3. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK ETA ERREFERENTZIA-XEDEAK AUTOMOBILGINTZAKO ETA FINANTZA ETA ADMINISTRAZIOKO LANBIDE-ARLOETAN

## 3.1 Ikuspegi orokorra

Nazio Batuek 2030 Agendaren bidez proposatutako 17 Garapen Jasangarrirako Helburuak 169 Xedetan hedatzen dira, zeinak Helburuen artean banatuta baitaude.

Lantaldeari aplikatu ahal zaizkion Xedeak identifikatzea izan da taldeak egindako lehen jarduera, eta hurrengo pausuetarako oinarria izan da. Horretarako honako ezaugarri hauek hartu dira kontuan:



### HEZIKETA-JARDUERA ETA HORREK ENPRESAREKIN DAUKAN HARREMANA



Lanbide-heziketako ikastetxeen ardatz nagusia da. Esparru honetan funtsezkoa da heziketa eta lan-merkatutako sarbidea kontuan hartzea, bai eta heziketa-zikloen arloak ere.

### ANTOLAMENDUA



Lanbide-heziketako ikastetxe bakoitza pertsonen osatutako erakunde bat da, zenbait baliabide (instalazioak, adibidez) dituena. Arlo honetan, garrantzitsua da kontuan hartzea ikastetxeetako barne-politikak, hala nola soldata-, berdintasun-, bateratze-politikak etab. Halaber, eraikinek mantenu-lana behar dute; hobetu eta heziketa-ikuspegi berrietara moldatu daitezke, eta kasu batzuetan hobekuntza iraunkorrerako, ingurumenaren hobekuntzarako eta abarretarako kudeaketa-sistemak dituzte. Esparru honetan kontuan hartutako beste ezaugarri bat komunikazioa da, bere forma guztietan.






### IKASLEAK



Ikasleak ikastetxeen ardatz nagusia dira, eta bertan bizikidetzarako eta esperimentatzeko guneak aurkitzen ditu. Hala, kontuan har daitezke bizitza osasuntsurako elikadura-ohiturak, kirola, elkartasunarekiko konpromisoa, boluntariora eta abar bultzatzen dituzten ekimenak.



Analisi honen emaitza modura, taula bat aurkezten da, 2030 Agendaren 169 erreferentzia-xedeetatik hiru esparru horietan zein proposatzen diren laburbiltzen duena. HEZIKETA-JARDUERAREN kasuan kontuan hartu dira bai bi arloen ezaugarri komunak, bai Automobilgintzaren edo Administrazioa eta finantzak arloaren ezaugarri espezifikoak:

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	
 <b>JARDUERA</b> Komuna <b>ACTIVIDAD</b> Común <b>ACTIVITÉ</b> Commun				4.3 4.4 4.5 4.7 4.c				8.2 8.3 8.4 8.6 8.8					13.3					17.6
			3.6			6.3			9.4 9.5			12.2 12.4 12.5						
	1.2							8.8				12.6						16.6
 <b>ERAKUNDEA</b> <b>ORGANIZACIÓN</b> <b>ORGANISATION</b>		2.2	3.4 3.6	4.a	5.1 5.2 5.4 5.5		7.2 7.3	8.8		10.3 10.7	11.7 11.a	12.2 12.3 12.6 12.7	13.2	14.1	15.9	16.6 16.7	17.17	
 <b>IKASLEGOA</b> <b>ALUMNADO</b> <b>ÉLÈVES</b>			3.5 3.6		5.1 5.2 5.5						11.2		13.3					

Ondoren, informazio gehiago azaltzen da, bai eta lantaldearen oharrak ere, lanbide-heziketako ikastetxeek edo proiektuan hartutako bi lanbide-arloek kontuan har ditzaten.



### 3.2 Interpretatzeko gakoak



#### Helburua da pobrezia-mota guztiak desagertzea mundu osoan

Hauxe da ereduzko xedea:

1,2 Hemendik 2030era, gutxienez erdira murriztea definizio nazionalen arabera pobrezian (bere dimentsio guztietan), bizi diren adin guztietako gizonen, emakumeen eta haurren proportzioa.



#### Lantaldearen oharrak

Lanbide Heziketako jarduerak berak pobrezia murrizteko egiten duen lana kontuan hartu behar bada ere, garrantzitsua da ikasleak oinarrizko finantza-gaietan, etxeko ekonomian eta gai praktikoetan trebatzea, lan-bizitzara modu arduratsu eta eraginkorrean iristeko.



#### Helburua da gosea amaitzea, elikagai-segurtasuna eta nutrizio hobea lortzea, eta nekazaritza jasangarria bultzatzea

Hauxe da ereduzko xedea:

2,2 Malnutrizio-mota guztiak amaitzea, obesitatea ere kontuan hartuta







#### Lantaldearen oharrak

Nutrizioaren arloan, Lanbide Heziketako ikastetxeek elikadura-ohitura osasungarriak susta ditzakete sentsibilizazio-kanpainen bidez. Gainera, ikastetxeek vending-makinetako produktuak ordezka ditzakete eta produktu osasungarriak erabili, hala nola fruta, fruitu lehorrak...



**Helburua da guztiontzat eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea**

Hauxe da **ereduzko xedea**:

			
3,4 Osasun mentala eta ongizatea sustatzea		✓	
3,5 Substantzia adiktiboen abusua prebenitzea			✓
3,6 Erdira murriztea trafiko-istripuek eragindako heriotzen eta lesioen kopurua.		✓	✓



**Lantaldearen oharrak**

3.6 xedeari dagokionez, automozioaren arloak maila teknikoan lantzen ditu segurtasun-sistemak, baina ez dira sistema horiek garatzen. Zeharkako edukiak landu daitezkeela uste da, hala nola istripuen prebentzioari buruzko kontzientziazioa eta ibilgailuaren erabilera egokia, ikastetxean hitzaldiak, proiektuak eta kanpainak eginez...



**Helburua da guztiontzako kalitateko hezkuntza inklusiboa nahiz bidezkoa bermatzea eta etengabeko ikaskuntzarako aukerak bultzatzea**

Hauxe da ereduzko xedea:

			
4.3 Gizon eta emakume guztiak kalitatezko prestakuntza tekniko, profesionala eta goi-mailakoa jasotzeko aukera berdinak izan ditzaten ziurtatzea, unibertsitateko irakaskuntza barne.	✓		
4.4 Nabarmen areagotzea enplegua eta lan duina lortzeko eta ekintzailtzarako beharrezko gaitasunak (bereziki gaitasun teknikoak eta profesionalak) dituzten gazteen eta helduen kopurua.	✓		
4.5 Hezkuntzan dauden genero-desberdintasunak ezabatzea, eta pertsona kalteberek, desgaitasunen bat dutenak barne, irakaskuntzako eta lanbide-heziketako maila guztietara berdintasunez iristeko aukera izan dezaten bermatzea.	✓		
4.7 Ikasle guztiak garapen jasangarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratuko dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizi-estilo jasangarrietarako, giza eskubideetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzeko, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasuna baloratzeke eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez.	✓		
4.c Irakasle kualifikatuen eskaintza nabarmen handitzea, baita garapen-bidean dauden herrialdeetan irakasleak prestatzeko nazioarteko lankidetzaren bidez ere, bereziki gutxien garatutako herrialdeetan.	✓		
4.a Haurren eta desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak eta genero-desberdintasunak kontuan dituzten eta ikaskuntza-ingurune seguruak, indarkeria gabeak, inklusiboak eta guztiontzako eraginkorrak eskaintzen dituzten hezkuntzako instalazioak erakitzea eta egokitzea.		✓	



**Lantaldearen oharra**

Lanbide Heziketan dauden arlo guztiak funtsezko zeregina dute xede horietan, eta, oro har, ekarpen nabarmena egiten diote Helburu honi.

4.7 xedearekin lotuta, zeharka landu liteke garapen jasangarriaren kontzeptuari buruzko ezagutza handiagoa, etorkizuneko lan-bizitzara ez ezik, eremu pertsonalera ere bideratuta. Zeharka landu daitezke ekonomia zirkularra, bidezko merkataritza, erosketaren arduratsua eta beste.




**Nota:** Euskadin bada hizkuntza- eta kultura-aniztasuna sustatzearekin lotutako ekimen bat, zeinaren bidez zenbait eremutan 18. GJHtzat hartzen baita, Hizkuntza eta Kultura Aniztasuna izenekoa.





**Helburua da genero-berdintasuna lortzea, eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea**

Hauxe da **ereduzko xedea**:

			
5,1 Emakume guztien aurkako diskriminazio-mota guztiak amaitzea.		✓	✓
5,2 Eremu publikoan eta pribatuan emakume guztien aurkako indarkeria-mota guztiak desagertzea.		✓	✓
5,4 Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publikoen, azpiegituren eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatuz.			✓
5,5 Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lidergoko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan.		✓	✓



**Lantaldearen oharrak**





Lanbide Heziketako lanbide-arlo batzuetan emakumezko ikasle gutxiago daude, baina parte-hartzean ez da alderik nabari. Hezkuntza Sailak genero-berdintasunari buruz kontzientziatzeko kanpainak egiten ditu.

5.5 xedeari dagokionez, zehazki, Lanbide Heziketaren etapan emakumezko ikasleek gizonezko ikasleek adina edo gehiago parte hartzen badute ere, garrantzitsua da emakumeak lan-bizitzara pasatzeko prestatzea, erabakitze-mailetan eta parte hartzeko esparruetan duten rolaen garrantzia indartuz.



**Helburua da Uraren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea**

Hauxe da **ereduzko xedea**:

			
6,3 Uraren kalitatea hobetzea, hauxe da, kutsadura murriztea, hondakin, produktu kimiko eta material arriskutsurik ez isurtzea, tratatu gabeko hondakin-uren portzentajea erdira murriztea, eta birziklapena eta arriskurik gabeko berrerabilera nabarmen areagotzea.			



**Lantaldearen oharrak**

6.3 xedea AUTOMOZIOA arloaren berariazko xedea da. Zeharkako eduki gisa lantzen da ikasleekin, eta hondakinen gune zehatz batzuk erabiltzen dira ikastetxeko tailerretan.

Zehazki, Akitania Berrian, ikasturte-amaierako titulua lortzeko, jasangarritasunari eta birziklatzeari buruzko azterlan berezia dago, besteak beste.



**Helburua da energia eskuragarria, fidagarria, jasangarria eta modernoa bermatzea guztiontzat**

Hauxe da **ereduzko xedea**:



7,2 Energia berriztagarrien proportzioa nabarmen handitzea energia-iturri guztien artean.		✓	
7,3 Energia-eraginkortasunaren tasa bikoiztea		✓	



**Helburua da guztiontzako hazkunde ekonomikoa jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea**

Hauxe da **ereduzko xedea**:



8,2 Produktibitate ekonomikoa hobetzea dibertsifikazioaren, modernizazio teknologikoaren eta berrikuntzaren bidez.	✓		
8,3 Lanpostu egokien sorrera, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza sustatzea.	✓		
8,4 Baliabideen ekoizpen eta kontsumo eraginkorra hobetzea eta hazkunde ekonomikoa ingurumenaren degradaziotik bereiztea.	✓		
8,6 Enplegurik ez duten eta ikasten ari ez diren gazteen proportzioa murriztea.	✓		
8,8 Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune seguruak eta arriskurik gabeak sustatzea.	✓	✓	✓



**Lantaldearen oharrak**






Helburu hau, 4. helburuaz gain, lehentasunezko helburua da Lanbide Heziketarako, oro har. Lanbide Heziketako arlo guztietan, laneko arriskuen prebentzioari buruzko gaiak lantzen dira 8.8 xedearen barruan, eta horrek berekin dakar Euroeskualdeko hiru eskualdeetan Laneko Arriskuen Prebentzioko oinarri-zko titulua izatea prestakuntza amaitzean. ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK arloan, gainera, gehiago sakontzen da, lan-eskubideak eta lan-ingurune seguruaren eta arriskurik gabeko garrantzia landuz (8.8 xedea), besteak beste, lanerako prestakuntza eta orientazioa, giza baliabideen kudeaketa eta erantzukizun sozial korporatiboa ikasgaietan.





**Helburua da azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta jasangarria bultzatzea eta berrikuntza sustatzea**






Hauxe da **ereduzko xedea**:

9,4 Industriak eraldatzea, iraunkorrak izan daitezen. Horretarako, baliabideak eraginkortasun handiagoz erabili behar dira eta teknologia eta prozesu industrial garbiak eta ingurumenaren ikuspegitik arrazoizkoak erabiltzen direla bermatu behar da.			
9,5 Industria-sektoreen gaitasun teknologikoa hobetzea, berrikuntzaren eta ikerketaren bidez.			
			



**Helburua da herrialde bakoitzaren barneko eta herrialdeen arteko desberdintasunak murriztea**

Hauxe da **ereduzko xedea**:

10,3 Pertsona guztiei aukera-berdintasuna bermatzea.			
10,7 Pertsonen migrazioa eta mugikortasuna ordenatua, segurua, erregularra eta arduratsua izatea.			
			



**Lantaldearen oharrak**

Migrazioa errazteari buruzko 10.7 xedeari dagokionez, ikastetxeek irizpideak ezartzeko gaitasunik ez duten arren, ikasle migratzaileei lagundu diezaiekete zenbait izapide egiten, hala nola lan-baimenak, gizarte-segurantzako alta, etab.



**Helburua da hiriak eta giza kokaguneak inklusi-  
boak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak  
izatea lortzea**

Hauxe da **ereduzko xedea**:



11,2 Garraio-modu jasangarriak izateko aukera sustatzea.			✓
11,7 Berdegune eta espazio publiko seguru, inklusibo eta irisgarrietarako sarbidea ematea.		✓	
11.a Hiriguneen, hiri-inguruen eta landa-eremuen arteko eko- nomia-, gizarte- eta ingurumen-lotura positiboak babestea, eskualdeko garapenaren plangintza sendotuz.		✓	



**Lantaldearen oharrak**

Forma NAEN proiektuaren mugaz gaindiko izaerak erantzuna ematen dio eta laguntzen dio 11.a xedeari, Euroeskualdearen ikuspegitik ulertuta.



**Helburua da kontsumo eta ekoizpen  
modalitate jasangarriak bermatzea**

Hauxe da **ereduzko xedea**:



12,2 Baliabide naturalen kudeaketa jasangarria eta erabilera eraginkorra egin dadila lortzea.		✓	
12,3 Erdira murriztea alferrik galtzen diren elikagaien kopurua.		✓	
12,4 Atmosferara egiten diren igorpenak murriztea, bai eta uretara eta lurzorura egiten diren isurketak ere.			
12,5 Hondakinen sorrera nabarmen murriztea, prebentzioaren, murrizketaren, birziklatzearen eta berrerabileraren bidez.			
12,6 Erakundeetan praktika jasangarriak egitea eta jasangarritasunari buruzko informazioa publiko egitea.		✓	
12,7 Erosketa publiko jasangarriko praktikak ezartzea.		✓	



**Lantaldearen oharrak**

ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK arloan 12.6 xedearen helburuak lantzen dira, bai Erantzukizun Korporati-  
boaren moduluan, bai Goi Mailako bigarren mailako enpresa simulatuan.



### 13 KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

## Helburua da neurri urgenteak hartzea klima-aldaketaren eta haren ondorioen aurka egiteko

Hauxe da **ereduzko xedea**:



13,2 Klima-aldaketari buruzko neurriak hartzea (arintzea eta egokitzea).		✓	
13,3 Hezkuntza, sentsibilizazioa eta giza ahalmena eta erakundeena hobetzea, klima-aldaketa murrizteko, hartara egokitzeko, haren eraginak arintzeko eta garaiz ohartarazteko.	✓		✓



### Lantaldearen oharrak

Klima-aldaketari buruzko hezkuntza eta sentsibilizazioa zeharkako eduki gisa lantzen dira lanbide-arlo guztietan, eta kontzientziazio-kanpainak egiten dira ikastetxeetan. AUTOMOBILGINTZA arloan ibilgailu elektrikoari buruzko edukiak lantzen dira, klima-aldaketa arintzearekin zerikusi handia baitu.



### 14 ITSASPEKO BIZITZA

## Helburua da ozeanoak, itsasoak eta itsas baliabideak mantentzea eta modu jasangarrian erabiltzea, garapen jasangarriari begira

Hauxe da **ereduzko xedea**:



14,1 Mota guztietako itsas kutsadura prebenitzea eta nabarmen murriztea, bereziki, lehorrean eginiko jarduerak sortutakoa.		✓	
--	--	---	--



### 15 LEHORREKO BIZITZA

## Helburua da lehorreko bizitza babestea, lehengoratzeta eta modu jasangarrian erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrian kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa gelditzea eta lehengoratzeta, eta biodibertsitatearen galera gelditzea

Hauxe da **ereduzko xedea**:



15,9 Ekosistemen balioak eta biodibertsitatea eta haien zerbitzuak plangintzan txertatzea.		✓	
--	--	---	--



**16** **BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK**  
**Helburua da garapen jasangarrirako gizarte baketsu eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta inklusiboak sortzea maila guztietan**

Hauxe da **ereduzko xedea**:



16,6 Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak sortzea maila guztietan.			
16,7 Erabaki inklusiboak, parte-hartzaileak eta esanguratsuak hartuko direla bermatzea maila guztietan.			



**17** **HELBURUAK LORTZEKO ITUNAK**  
**Helburua da Garapen Jasangarrirako Munduko Aliantza inplementatzeko eta biziberritzeko bitartekoak indartzea**

Hauxe da **ereduzko xedea**:



17,6 Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloetan lankidetzaren hobetzea, bai eta haietarako sarbidea ere, eta eza-gutuzen trukea areagotzea bi aldeetan artean hitzartutako baldintzetan, egungo mekanismoen arteko koordinazioa hobetuz ere, bereziki, Nazio Batuei dagokienez.	✓		
17.7 Eremu publikoan, publiko-privatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezela sustatzea, aliantzen bidez baliabideak lortzeko esperientzia eta estrategiak aprobetxatuz.		✓	



**Lantaldearen oharrak**

17.6 xedeari dagokionez, ikastetxe batzuek zenbait ekimen eramaten dituzte aurrera, hala nola Mugarik gabeko ekonomialariak erakundearekin lankidetzan aritzea, Afrikako herrialdeekin lankidetzan aritzea ezagutza haietara helarazteko, baina ez dago ildo estrategikorik garapen-bidean dauden herrialdeekin lankidetzan aritzeko. Lortu beharreko helburu gisa planteatu liteke.



# 4. LANTALDEAK IDENTIFIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK

## 4.1 Jardunbide Egokien aurkezpena

Ondoren, lantaldeak identifikatu dituen zazpi Jardunbide Egokiak aurkezten dira modu eskematikoan, hauek zehaztuta: izenburua, zer GJHtan laguntzen duten, zer esparrutakoak diren eta ikastetxeek zer balorazio eman dieten egin ondoren. Kasu bakoitzean alderdi balioetsienak nabarmendu dira, halaber:

Jardunbide egokia	Zer GJHtan laguntzen duen	Zein esparrutan egiten den (Heziketa-jarduera, Antolamendua edo Ikasleak)	Balorazio orokorra (0-10)	Alderdi balioetsiena
1. JE: Energia-Ibilbi-dea		ANTOLAMENDUA	6,6	Eraginkortasuna
2. JE: Klima Aldaketari buruzko escape room-a		IKASLEAK	8,1	Bideragarritasuna Baliagarritasuna Transferitzeko gaitasuna
3. JE: 2030 Agenda ezagutzea		HEZIKETA-JARDUERA	8,2	Bideragarritasuna Baliagarritasuna Eraginkortasuna Transferitzeko gaitasuna
4. JE: Emakumeek lanbide-arlo bakoitzaren esparruari egindako ekarpenak identifikatzea		HEZIKETA-JARDUERA	8,2	Eraginkortasuna Transferitzeko gaitasuna
5. JE: "Lan duinari" buruzko gogoeta		HEZIKETA-JARDUERA	7,1	Transferitzeko gaitasuna
6. JE: Etxeko finantzen azterketa	 	ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK arloko HEZIKETA-JARDUERA espezifikoa	8,1	Baliagarritasuna Eraginkortasuna
7. JE: Enpresa simulatu bateko Berdintasun Plana		ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK arloko HEZIKETA-JARDUERA espezifikoa	7,7	Transferitzeko gaitasuna



### 4.3 Jardunbide Egokiak egiteko jarraibideak

Ondoren Jardunbide Egoki bakoitza egiteko jarraibideak azaltzen dira fitxa moduan:

1. JE: Energia-ibilbidea	
JARDUNBIDE EGOKIA	ENERGIA-IBILBIDEA
ESPARRUA	 <b>ANTOLAMENDUA</b>
GJH	 <b>ENERGIA ESKURAGARRIA ETA EZ-KUTSATZAILEA</b>
XEDEA	7.3: Energia-efizientziaren tasa bikoiztea.
HELBURUA	Eraikinaren energia-portaera aztertzea eta hobekuntza-plana egitea.
Behar diren baliabideak	-Energia-analisirako fitxa (1. baliabidea). -Argiaren eta gasaren azken fakturak.
Nori zuzendua	Goi Mailako edo Erdi Mailako zikloetako 1. edo 2. mailako ikasleei.
Gauzatzeko jarraibideak	<p>Helburua ikastetxearen "energia-portaeraren" azterketa egitea da: Nondik dator energia (galdara-gelatik, elektrizitate-kutxatik)? Nondik joaten da beroa? Nola funtzionatzen du berokuntza-sistemak? Zer tresnak kontsumitzen dute elektrizitatea?</p> <p>Horretarako, lehenik eta behin, diziplina anitzeko talde bat eratuko da, ikaslez, irakaslez, eraikinaren mantentze-lanetarako arduradunaz, energia-fakturen ordainketaren arduradunaz eta aproposa izan daitekeen bestelako edozein pertsonaz osatua.</p> <p>Hurren, eraikinaren atalak bisitatzeko ibilbidea planifikatuko da: ikasgelak, irakasle-gela, galdara-gela, berokuntzako termostatoa, laborategiak/tailerrak (egonez gero), etab. Halaber, uraren, argiaren eta gasaren fakturak aztertuko dira, kontratatutako potentzian edo bestelako alderdiren batean doikuntzak egiteko aukera dagoen ikusteko.</p> <p>Ibilbidea amaitu ondoren, diziplina anitzeko taldeak gogoeta egingo du eraikinaren energia-portaerari buruz. Indarguneak eta ahulguneak identifikatuko ditu, eta energia-efizientzia hobetzeko proposamenak eta aldaketak zehaztuko ditu.</p>



## 2. JE: Klima Aldaketari buruzko escape room-a

JARDUNBIDE EGOKIA	Klima Aldaketari buruzko escape room birtuala
ESPARRUA	 <b>IKASLEAK</b>
GJH	 <b>KLIMAREN ALDEKO EKINTZA</b>
XEDEA	13.3: Klima-aldaketa murriztearen inguruko hezkuntza, sentsibilizazioa eta pertsonen zein erakundeen ahalmena hobetzea, bai eta klima-aldaketara egokitzearen, haren eraginak arintzearen eta garaiz ohartaraztearen ingurukoak.
HELBURUA	Jolas-jarduera baten bidez, hala nola escape room birtual baten bidez, Klima Aldaketaren gaineko zenbait kontzeptu ezagutaraztea, eta ikasleekin Klima Aldaketari buruzko eztabaida sortzea.
Behar diren baliabideak	Ordenagailuak eta Internet konexioa.
Esteka:	Sea Level Rise Room: <a href="https://sealevelriseroom.com/es/">https://sealevelriseroom.com/es/</a>
Nori zuzendua	Goi Mailako edo Erdi Mailako zikloetako 1. edo 2. mailako ikasleei.
Gauzatzeko jarraibideak	<p><i>Escape roomak</i> 50 minutu iraun dezake (taldeen pistak aurkitzeko abiaduraren arabera).</p> <p>Irakasle batek aldez aurretik jolasa ezagutu, baliabideak deskargatu eta ondorengo eztabaida prestatu dezake.</p> <p>1-2 ordu erreserba daitezke. 4 talde sortu.</p> <p>Talde bakoitza jokalaria bat izango da.</p> <p>Amaitu ondoren, irakasleak "Gogoeta-gida" atalean dauden baliabideak eman ditzake, eta jolasaren bidez jabetu diren gauzei buruzko eztabaida dinamizatu dezake.</p> <p>Ondoren, eztabaida egin: norbanakoen ekintza-esparruak vs eragin kolektiboa.</p> <p>Azkenik, "Fridays for future" ekimenari buruz hitz egin daiteke, halaber, ikasturte honetan ostiral batzuetan greba-deialdiak berriro egin baititu.</p>



### 3. JE: 2030 Agenda ezagutzea

JARDUNBIDE EGOKIA	2030 AGENDA EZAGUTZEA ENPRESEN IKUSPEGITIK
ESPARRUA	 <b>JARDUERA KOMUNA</b>
GJH	 <b>KALITATEZKO HEZKUNTZA</b>
XEDEA	<p>4.7: Ikasle guztiek garapen jasagarria sustatzeko beharrezkoak diren ezagutza teorikoak eta praktikoak eskuratuko dituztela ziurtatzea, besteak beste, garapen jasangarrirako eta bizimodu jasangarrietarako, giza eskubi-deetarako, genero-berdintasunerako, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzeko, munduko herritartasunerako eta kultura-aniztasuna baloratzeko eta kulturak garapen jasangarriari laguntzeko, hezkuntzaren bidez.</p>
HELBURUA	<p>GJHak ezagutzea, enpresek GJHetan nola lagundu dezaketen aztertuz.</p>
Behar diren baliabideak	<p>-2030 Agenda-enpresak Txostena (talde bakoitzari kopia bana proiektatu edota eman ahal zaio) (2. baliabidea)                      -Enpresa-GJH analisia (ikasleek bete beharreko fitxa. Fitxa bat enpresa bakoitzeko) (3. baliabidea)</p>
Nori zuzendua	<p>2. mailako ikasleei. "Enpresa eta Ekimen Ekintzailea" ikasgaia.</p>
Gauzatzeko jarraibideak	<p>1.- Jarduera eta bere helburua aurkeztuko zaie.                      [Irakasleek ppt-a aurkeztu dezakete hasieran, eta landutako gaiarekin zerikusia daukan informazio praktikoa gehitu, ereduak azaldu, oharrak eta abar atxiki ditzakete.]                      2.- Sortutako talde/enpresa bakoitzari txostena eta "Enpresa-GJH analisia" dokumentua emango zaie, eta analisi-fitxa betetzeko eta azkenik beren enpresen GJH nagusiak identifikatzeko eskatuko zaie.                      3.- Irakasleek analisien emaitzak jaso ditzakete, eta horrekin batera txanda bat egin dezakete talde bakoitzak zer GJH lehenetsi diren eta zergatik azal dezaten.                      4.- Jardueraren ondoren, irakasleek laburbilduta jaso ditzakete emaitzak fitxa honen bigarren atalean.</p>





## 4. JE: Emakumeen ekarpenak identifikatzea

JARDUNBIDE EGOKIA	EMAKUMEEK ZIKLO BAKOITZAREN ESPARRU ESPEZIFIKORA EGINDAKO EKARPENAK IDENTIFIKATZEA
ESPARRUA	 <b>JARDUERA KOMUNA</b>
GJH	 <b>GENERO-BERDINTASUNA</b>
XEDEA	5.5: Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lider-goko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan.
HELBURUA	Lanbide-arlo bakoitzaren esparruan ekarpenak egin dituzten emakumeak identifikatzea eta aitortzea.
Behar diren baliabideak	
Nori zuzendua	Goi Mailako eta Erdi Mailako zikloetako 1. eta 2. mailako ikasleei.
Gauzatzeko jarraibideak	<p>Lehen zeregina ikasleek lanbide-arlo bakoitzaren esparru espezifikoan ekarpenak egin dituzten emakumeak bilatzea da. Ondoren, hausnarketa txikia egin, eta informazioa bideo batean laburki dokumentatu behar da.</p> <p>Ekarpen guztiekin bideo-muntaia egin, ikasleen lanbide-arloarekin zerkusia daukaten esparruetan ekarpenak egin dituzten emakumeak ikusgai egiteko.</p> <p>Aukera bat izango litzateke bideo horiek Martxoaren 8rako izatea, eta egun horretan klase bakoitzak egindako lana partekatzea.</p>



## 5. JE: "Lan duinari" buruzko gogoeta

JARDUNBIDE EGOKIA	"LAN DUINA" KONTZEPTUARI BURUZKO GOGOETA
ESPARRUA	 <b>JARDUERA KOMUNA</b>
GJH	 <b>LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA</b>
XEDEA	8.3: Lanpostu duinak sortzea, ekintzailtza, sormena eta berrikuntza sustatzea.
HELBURUA	"Lan duina" kontzeptuaren esanahiari buruzko eztabaida eta gogoeta sustatzea ikasleen artean.
Behar diren baliabideak	
Nori zuzendua	Edozein arlotako Goi Mailako Zikloko 2. mailako ikasleei.
Gauzatzeko arraibideak	<p>Abiapuntu moduan planteatu daiteke kanpoko pertsona bat gonbidatzea hitzaldi bat eman dezan: Hala nola sindikatu bateko ordezkaria, enpresa bateko Giza Baliabideetako arduraduna...</p> <p>Hori abiapuntu hartuta, Jardunbide Egoki hau bideratzeaz arduratzen diren irakasleek, 2030 Agendaren 8. GJHan eta 8.3 Xedean oinarrituta, ikasleen artean eztabaida irekia sustatuko lukete. Hala, ikasleek gogoeta egingo lukete "lan duinaren" inguruan hitz egiteko kontuan hartu beharreko gaiak buruz: soldata eta soldata-arrakala, malgutasuna, lanbide-garapenerako eta enpresan igotzeko aukerak, berdintasunerako eta integrazioerako barne-politikak, lan-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzea...</p> <p>Helburua eztabaida bideratua sortzea da, ikasleek gogoeta egin eta eztabaida dezaten "lan duinaren" inguruan hitz egiteko orduan kontuan hartu beharreko irizpideei buruz, eta horrekin batera gaiaren inguruan dituzten pertzepzioak entzutea.</p>





## 6. JE: Etxeko finantzen azterketa

JARDUNBIDE EGOKIA	ETXEKO FINANTZEN AZTERKETA
ESPARRUA	 <p><b>BERARIAZKO JARDUERA (ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ARLOA)</b></p>
GJH	 <p><b>POBREZIA DESAGERRARAZTEA</b></p>  <p><b>LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA</b></p>
XEDEA	<p>1.2: Hemendik 2030era, gutxienez erdira murriztea definizio nazionalen arabera pobrezian (bere dimentsio guztietan) bizi diren adin guztietako gizon, emakume eta haurren proportzioa.</p> <p>8.8: Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune seguruak eta arriskurik gabek sustatzea.</p>
HELBURUA	<p>Familia-unitate baten diru-sarrerak (errealak edo fikziozkoak) eta gastuak (finkoak zein aldakorak) kalkulatzeko eta horren inguruan gogoeta egitea.</p>
Behar diren baliabideak	<p>-Excel-eko orria, diru-sarrerak jasotzeko.</p>
Nori zuzendua	<p>Administrazioa eta Finantzak Erdi Mailako Zikloko 2. mailari.</p>
Gauzatzeko jarraibideak	<p>Ikasle bakoitzak bere familiaren diru-sarrerak kalkulatu ditu (datu errealean edo bizi den udalerriko batez besteko diru-sarreren bidez), eta familia-unitateak dituen hileko edo urteko gastu guztiak kalkulatu ditu (hainbanatuz): hipoteka/alokairua, etxeko kontsumoa (argia, ura, gasa, Internet...), aseguruak, elikadura, arropa, bidaiak, hezkuntza, eskolaz kanpoko jarduerak...</p>



## 7. JE: Enpresa simulatu bateko Berdintasun Plana

JARDUNBIDE EGOKIA	ENPRESA SIMULATURAKO BERDINTASUN-PLANA EGITEA
ESPARRUA	 <b>BERARIAZKO JARDUERA (ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK ARLOA)</b>
GJH	 <b>GENERO-BERDINTASUNA</b>
XEDEA	<p>5.1: Emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak amaitzea.</p> <p>5.2: Eremu publikoan eta pribatuan emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak desagerraraztea.</p> <p>5.4: Ordaindu gabeko zaintzak eta etxeko lana aitortzea eta baloratzea zerbitzu publikoen, azpiegituren eta gizarte-babeseko politiken bidez, eta etxean eta familian erantzukizun partekatua sustatzea.</p> <p>5.5: Emakumeen parte-hartze osoa eta eraginkorra ziurtatzea, baita lider-goko aukera-berdintasuna ere, bizitza politikoko, ekonomikoko eta publikoko maila erabakitzaile guztietan.</p>
HELBURUA	Lurralde-eremu bakoitzean (Euskadi, Nafarroa eta Akitania Berria) dauden erreferenteen bidez sortutako enpresa simulatuarekin bat etortzen den berdintasun-plan bat sortzea.
Behar diren baliabideak	Lurralde bakoitzeko erreferentziazko planak.
Nori zuzendua	ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAKo Goi Mailako Zikloko 2. mailako ikasleei, "ENPRESA-PROIEKTUA" edo "ENPRESA SIMULATUA" ikasgaiaren bidez.
Gauzatzeko jarraibideak	<p>Lehen eginkizuna esparru bakoitzean erreferentziazko erakundea eta plana identifikatzea izango da. Euskadin, adibidez, Emakunderen berdintasun-planak, eta Nafarroan SKOLAE.</p> <p>Irakasle arduradunek jarraibideak eskaini ditzakete berdintasun-planak kontuan hartu beharreko arloei buruz: emakumeak ahalduntzea, erakundeak eraldatzea eskubideak bermatzeko, emakumeen aurkako indarkeria... Lurralde bakoitzean modelo, berdintasun-planaren eredu edo enpresa-esparruaren egokitzapen bat hartuko da, eta azkenik ikasleek sortutako enpresara egokitutako Berdintasun-plan bat sortuko dute.</p>



# 5. EUROESKUALDEKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXEETAN JARDUNBIDE EGOKIAK EZARTZEKO BALIABIDEAK

## 5.1 Baliabidea 1. Energia-analisiaren fitxa

RECORRIDO ENERGÉTICO Interior del edificio			
<b>Información general sobre el tiempo</b>			
Temperatura exterior			
Temperatura interior			
¿El cielo está nublado o despejado?			
<b>Información general sobre la estancia</b>			
¿Dónde (aula, biblioteca, sala de usos múltiples...)?			
Planta			
Orientación (Norte, Sur, Este, Oeste)			
¿Hace esquina?			
<b>Espacio</b>			
Iluminación	<b>Tipo de iluminación</b>	Cantidad	
		Existencia	Apagado
	Fluorescentes (número de tubos)		
	Bombillas incandescentes		
	Bombillas de bajo consumo		
	Otros		
¿Se encienden todas a la vez?			
¿Hay bombillas fundidas? ¿Cuántas?			
Calefacción	<b>Tipo de calefacción</b>	Cantidad	Tamaño (número de radiadores)
Radiadores			
¿Es posible regular el sistema de calefacción?			
Aparatos eléctricos	<b>Aparato</b>	Cantidad	Si está by default apagado
	Ordenador		
	Proyector		
	Pizarra digital		
	Impresora		
Otros:			
Otros:			
<b>Ventilación y protección solar</b>			
¿Las ventanas cierran correctamente o hay alguna que cierre mal?			
¿Cómo se realiza la ventilación?			
¿Hay persianas?			

Si hay algo que llame la atención, exponerlo a continuación:


RECORRIDO ENERGÉTICO Exterior del edificio		
<b>Información general</b>		
Día		
Temperatura exterior		
Año de construcción del centro		
<b>Información general sobre el edificio</b>		
	CALEFACCIÓN	ELECTRICIDAD
¿Cómo llega la energía al centro?		
¿De dónde sale la energía?	¿Consideras que el edificio está correctamente aislado? (Por qué?)	
	¿Qué tipo de ventanas son?	
	¿Son nuevas o están obsoletas?	
	¿Cierren correctamente?	
	¿Están abiertas o cerradas?	
	¿Cuántas puertas hay?	
	¿Normalmente suelen estar abiertas o cerradas?	
	¿Se cierran automáticamente o hay que cerradas manualmente?	

Si hay algo que llame la atención, exponerlo a continuación:

DESKARGATU ↓



## 5.2 Baliabidea 2. Agenda-2030-entresak txostena



DESKARGATU ↓

## 5.3 Baliabidea 3. Entresaren analisia GJH

**CONOCER LA AGENDA 2030**

**CARACTERÍSTICAS DE LA EMPRESA CREADA**

Describe a continuación de forma sintética, las principales características de la empresa:

Con ayuda del Dossier Agenda2030-empresas, anota a continuación que cuestiones se deberían tener en cuenta en tu empresa (no tiene por qué haber cuestiones a considerar en todos los ODS, dependerá de la empresa)




Una vez analizado, identifica cuáles serían los ODS principales para tu empresa:

DESKARGATU ↓